Se aprueba la realización del espectáculo, así como su presupuesto

### Programa Cooperación países en vías de desarrollo: Otorgamiento subvenciones
Se acuerda conceder con cargo a la cantidad destinada a la financiación a los países en vías de desarrollo del ejercicio 2011 aportaciones a los siguientes proyectos:

- Asociación HARE HAIZEA, 6.089,50 € para abonar los viajes de los menores del Sahara que vienen en el Programa "Vacaciones en Paz" y para realizar actividades con los menores.
- FAMILIA QUE HA ACOGIDO UN NIÑO RUSO, 1.218,00 € para abonar los viajes del menor de Rusia que viene a pasar el verano y las navidades con una familia urretxuarra.
- ILARGI BELTZA, 1.000,00 € para pagar los gastos de un contenedor con el fin de enviar una ambulancia a Nagarote en NICARAGUA
- Mª ARANZAZU BARRENETXEA, 8.181,34 €, para el mantenimiento de un hogar de menores en Camelot, TANZANIA.
- ILARGI BELTZA, 14.274,00 € con el fin de crear una Sala Materno infantil en el Centro de salud Dr. Raúl Vargas de Nagarote NICARAGUA.
- DENOK OSASUNAREN ALDE (DOA), 10.000,00 € para colaborar con los hospitales públicos de la zona, ofrecer atención medica especializada, trabajar en la prevención de enfermedades y formar profesionales en Beni, BOLIVIA.
- ADECO, 4.000,00 € para la sensibilización y difusión de la formación socio-educativa de adolescentes en riesgo en la amazonia peruana y formación y asesoramiento a padres y madres en temas básicos de actualidad. Yurimagua, Loreto, PERU.
- ADOC, 5.300,00 € con el fin de ofrecer en Santa Rosa GUATEMALA atención sanitaria de nivel primario
- JOSE MARI DE LA PIEDAD, 4.500,00 € para atender la desnutrición de menores de 5 años, y dar ayuda alimentaria semanal a familias sumidas en la pobreza en San Bartolo NICARAGUA.
- CALCUTA ONDOAN, 3.000,00 € para formar a las mujeres para la venta de pescado, apoyarles en el acceso a servicios médicos y garantizar a ellas y sus hijos condiciones de salud y nutrición en Trivandrum INDIA.
- ROKPA EUSKADI, 2.000,00 € para colaborar en el proyecto de atender y formar a menores sin familia en artes y/o oficios típicos del Tibet CHINA.
- ANDONI BERRIOTXOA, 8.000,00 € para construir tres pozos que permitirán dar agua potable, agua para ganado y regadío en SAHARA.
- FUDEN, 2.000,00 € con el fin de mejorar la disponibilidad de material bibliográfico del servicio de enfermería para mejorar el nivel de calidad de la atención que se presta a la población.
- DERANDEIN, 1.000,00 €, al objeto de garantizar la seguridad alimentaria y fomentar la autosuficiencia de mujeres y jóvenes a través de la formación Nairobi KENIA.
- GARABIDE ELKARTEA, 8.000,00 €, al objeto de favorecer el intercambio lingüístico y cultural con indígenas del sur del planeta
- ACTIVOS POR UN MUNDO SOLIDARIO, 4.000,00 €, para apoyar el desarrollo del nivel de autonomía de jóvenes con capacidades diferentes para conseguir una autonomía real en el sentido social, económico y personal en Diriamba NICARAGUA
- FUNDACION FELIX BALTISTAN, 1.200,00 €, para la reconstrucción de la canalización de Agua de New Khande, Baltistan PAKISTAN y mejorar las condiciones socio sanitarias de la población.
- TXIMEL AGUA, 1.837,16 € para tratamientos de fisioterapia a niños con enfermedades físicas, trasporte, apoyo de sus familiares y mantenimientos precisos en Tuma-Ladalia NICARAGUA.

### Relación de facturas
Se da cuenta de la relación de facturas nº 7 por importe de 91.458,85€, que es aprobada por unanimidad.

# Baserriko produktuak etxeko atean

Gorka Azkarate



**Orain aste batzuk, "Altxaporru" izeneko kontsumo taldea sortu da Zumarraga-Urretxun, bertako kontsumitzaileak eta baserriko ekoizleak zuzenean batzen dituen elkartea. Gipuzkoa mailan, modu honetako 38 talde inguru daude herri ezberdinetan, eta talde berriak sortzen ari dira, tartean gure herriotan sortu berri dena. Talde hauek ("Basherri" taldeak), EHNE (baserritarren sindikatua) eta Biolurrek (Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren aldeko elkartea) bultzatuta sortu dira, eta beraien inguruko informazio guztia "http://basherri.wordpress.com/" http://basherri.wordpress.com/ blog-ean dago. Zumarraga-Urretxun sortu den taldeko ekoizlea, Ezkio-Itsasoko Gorka Sasieta nekazaria da.**

Filosofia oso bat dago talde hauen atzean. Gorka Sasietaren hitzetan, "puntu garrantzitsu bat bertako produktuak kontsumitzea da, baserritarrei zuzenean erosita, bitartekaririk gabe, honek dakartzan onura guztiekin: bitartekaririk ez dagoenez komertzio juxtuagoa da, eta bertako produktuak direnez, garraio eta energia kostu handia aurrezten da".

Beste helburu garrantzitsu bat kontsumitzaileek produktuak nola ekoizten diren ezagutzea da. "Bisitak egiten dira baserrietara baratzak eta bestelako ekoizpenak ezagutzeko, eta tarteka auzolanak ere bai, baserritarraren eta kontsumitzailearen arteko

hurbilketa sustatzeko". Bestetik, erabaki asko taldean hartzen dira, baratzean zer eta nola landatu behar den, esaterako. "Baratzak modu ekologikoan lantzen dira, bi helburu nagusirekin: kontsumitzaileak pestizida eta bestelakorik gabeko produktu osasuntsuak kontsumitzea, eta lurra zaintzea, ekoizpen eredua jasangarria izan dadin". Altxaporru taldean 10 euroko 20 otar banatzen ari dira astean. Aurrera begira, taldea haztea espero da, eta udaberrira begira, otar gehiago banatzea.

Asteroko saskian garaian garaiko produktuak jasoko ditu kontsumitzaileak. Udaberrian, esaterako, ilarrak, babak, baratzuri freskoak, tipula edo letxugak; udan, piperrak, lekak, letxugak, tomateak, kalabazinak, berenjenak edo azelgak; neguan, berriz, aza mota desberdinak, porruak, azenarioak, erremolatxa, borrajak, espinakak, eskarolak edo kalabaza. Badira, horrez gain, "ganbarakoak" deitzen zaien beste barazki batzuk, urte osoan eskuragarri izango direnak: indaba, patata edo tipula, besteak beste. Sasietak dioenez, "momentuz, barazkiak banatzen ari gara asteroko saskian, baina aurrera begira bestelako produktuak ere banatuko dira, baserrikoak, denak ere: arraultzak, gazta, ogia, eztia, sagardoa, esnea, fruta...".

Gorka Sasieta, urretxuarra eta kaletarra da jaiotzez, gurasoak baserritarrak dituen arren (Urretxuko Agerrekoa aita eta Ezkio-Itsasoko Urkulegikoa ama). Txikitatik egon da, hala ere, baserriari estu lotua, eta Zaragozan albaitaritza ikasketak egin zituen. "Neure lan proiektua baserrian garatzea erabaki nuen, baina garbi neukan ez nuela produkzio intentsiborik ezarri nahi, nahiz eta albaitaritzako ikasketek horretara bultzatu". Basherri taldeen mugimendua ezagutu zuenean, erabat erakarri zuen bere filosofiak, eta bide horretatik baserria bideragarri bihurtzeko aukera ikusi zuen.

"Denetik geneukan baserrian, haragitarako lau behi, baratza, txerriak oiloak... Baratza hazi dut (3.500 m² ditugu orain) eta Pirenaika arrazako larre behiak aurrerako uzten ari naiz. Larreak hazi eta buru gehiago jartzea da nire asmoa. Horrela, pentsu ekologikoz txahalak gizendu eta haragia zuzenean saltzeko aukera lantzen ari naiz". Modu horretan, ganaduaren eta baratzaren arteko oreka lortuko luke Sasietak, etxeko simaurra ongarritarako erabiliz. Horrela, ziklo energetikoa itxiko litzateke, nekazaritza biodinamikoaren printzipioak betez eta bioaniztasuna eta jasangarritasuna uztartuz.

## Productos ecológicos de la huerta a su casa

Recientemente se ha creado en Zumarraga-Urretxu el grupo de consumo ecológico "Altxaporru". Existen 38 grupos de consumo de este tipo en Gipuzkoa y se han creado con el objetivo de acercar al productor y al consumidor, fomentando el comercio justo y el desarrollo sostenible de las explotaciones agrarias de la zona. Los miembros de este grupo de consumo reciben directamente toda clase de hortalizas de la mano del productor, Gorka Sasieta, en una cesta cuyo contenido cambia en función de la estación en la que nos encontremos.



*Maite Quevedo - M.ª Carmen Viedma*

**Duela gutxi Altxaporru taldea sortu da Urretxu-Zumarragan. Bertako kideek baserritarrak ekoiztutako produktuak zuzenean jasotzen dituzte, astero, 10 euroko loteetan. Besteak beste, ekoizle eta kontsumitzailearen arteko tratua hurbiltzeaz gain, nekazaritza ekologikoa bultzatzea da helburua. Baduzu ekimenaren berri? Zer iruditzen zaizu?**

## ELENA GARCIA

*Ez dut ekimen honi buruz ezer entzun baina iniziatiba polita iruditzen zait. Ez dut produktu ekologikoak erosteko ohitura berezirik eta hau aukera ona izan liteke, probatzeagatik animatuko nintzateke parte hartzera. Gainera, garaiko barazkiak ezagutzeko eta kontsumitzeko oso modu ona da, supermerkatuan beti denetik dugu eskura eta agian ez dugu egokiena erosten.*



## PEDRO IGARTUA



*Ezagutzen dut nekazaritza ekologikoaren gaia baina ez dut produktu hauek erosteko ohiturarik. Badakit kalitate aldetik hobeak izano direla baina agian ez dugu behar adina baliabide eskura. Izan ere, supermerkatu handien eraginez zailagoa da produktu hauetara iristea, horregatik, bertako produktua ezagutzera eman eta kontsumoa bultzatzeko ekimen egokia dela iruditzen zait.*

## J. MANUEL AMAYUELAS

*Tengo una huerta y la verdad es que me gusta mucho el tema de la agricultura ecológica, creo que cuanto más se fomente mejor, por eso, me parece estupenda la idea. Yo siempre que puedo, tengo costumbre de comprar producto ecológico y suele ser algo más caro, pero me parece que el precio de los lotes está bien.*



## ALOTS NUÑEZ

*Ez nuen ezagutzen baina oso egitasmo interesgarria iruditzen zait. Dudarik gabe, nekazaritza ekologikoko produktuak askoz hobeak izango dira komertzialak baino eta bertakoak badira oraindik hobeak! Askotan ohituragatik, edo denbora faltagatik supermerkatuetako barazkiak erostera jotzen dugu eta horregatik iruditzen zait egokia ekimen hau.*





*Recientemente se ha formado en Urretxu-Zumarraga el grupo de consumo Altxaporru, con el que el consumidor recibe directamente del baserritarra, un lote de hortalizas por 10 euros semanalmente. Además de acercar al productor y al consumidor, tiene como objetivo fomentar la agricultura ecológica. ¿Conoces la iniciativa? ¿Qué te parece?*

## CONCHI DELGADO



*Semeak produktu kimikorik gabe ekoizten du eta ongi ezagutzen dut nekazaritza ekologikoa. Produktuen itxura ez da supermerkatuetan ikusten ditugunena bezala, baina kalitatea hobea dela iruditzen zait. Ez nuen ekimenaren berri, eta oso ongi iruditzen zait. Prezioari dagokioenez, ez dakit zer datorren loteetan baina ez zait batere garestia iruditzen.*

## LOLI ARISTIZABAL

*Sí que he oído hablar del tema y me parece fenomenal. Todo lo que se haya cultivado sin pesticidas y de manera natural mejor, sin duda alguna. Yo creo que hay más costumbre de comprar las verduras en las grandes superficies por lo que es buena oportunidad para conocer el producto de aquí, me parece una buena alternativa.*



## JON ISUSI



*Ez dut nekazaritza ekologikoaren gaia ezagutzen, pentsatzen dut produktuak osasunarentzat hobeak izango direla eta ekimen honek produktuak ezagutzeko aukera ematen du. Ez dakit loteak nolokoak izango diren baina itxuraz behintzat hamar euro ez dira asko, supermerkatuan ere edozer gauzatan gastatzen dituzu.*



## TERESA MACHADO



*Yo tengo costumbre de comprar en los mercados, tanto el jueves como el sábado, así que conozco bien el producto de aquí. La verdad es que no se pude comparar la calidad de estos productos con otros. Quizás haya gente que no tiene tiempo o costumbre de acercarse a los mercados, por lo que para éstos la iniciativa esta fenomenal, me parece buen sistema.*

# Urretxu eta Euskara
## 2006ko datuetan oinarrituta

*Aztiker*

## Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntza gaitasuna, Urretxu 1981-2006




Urretxuko herritarren erdia baino gehiago (%54,6) elebidunak dira, hau da, gazteleraz zein euskaraz ondo moldatzen dira. Herritarren beste laurden bat (%25,1) erabat erdalduna da eta, bien artean kokatuta, gainerako %20,4a ia elebiduna da.
Hizkuntza gaitasunaren bilakaerari erreparatzen badiogu (ondoko grafikoan), ikusiko dugu nola hogei urtetan (1981-2001) asko hazi den elebidunen portzentajea eta nola gutxitu den erdaraz bakarrik dakitenena Urretxun. Azken bost urteetan ordea, tendentzia hori gelditu egin da, ez gora ez behera.

Urretxu eta bere ingurunea konparatzen baditugu, ondoriozta genezake bi errealitate ezberdinen artean kokatzen dela, Goierrikoa eta Gipuzkoakoa. Batetik, Goierri mailan Urretxuk euskal hiztun portzentaje txikia du, Goierrik batezbeste %60,3ko elebidun tasa baitu. Baina bestetik, Gipuzkoa mailan, batezbestekoa baino euskal hiztun tasa handiagoa du Urretxuk, Gipuzkoan portzentaje hau %52,9koa baita.

## Etxeko hizkuntza

Urretxuko herritarren erdiak baino gehiagok (%51,5) etxean erabiltzen duten hizkuntza gaztelera da, antzeman daitekeen bezala, ama hizkuntzaren datu oso antzekoa. %31,7ak euskaraz hitz egiten du etxean, %16,0ak euskaraz eta gazteleraz eta azkenik, %0,7ak beste hizkuntza batean.

1991 eta 2006 arteko bilakaerari begiratuz gero, ondorio orokor moduan esan dezakegu, etxean gazteleraz hitz egiten dutenen portzentajea jaitsi egin dela (%57,2tik 51,5era) eta euskaraz hitz egiten dutenena igo (%24,1etik 31,7ra). Halere, 2001-2006 artean fenomeno berezi bat ikusi daiteke, etxean bi hizkuntzetan hitz egiten dutenen kopurua jaitsi da. Eta jende hori bi zentzutan banatu da; batetik, etxean euskaraz hitz egiten dutenak dezente igo dira eta bestetik, gazteleraz hitz egiten dutenak ere pixka bat igo dira.

Ama Hizkuntza, Urretxu 2006




## Ama hizkuntza

Hizkuntza gaitasunaren datuak oso lotuta daude, nola ez, herritarren ama hizkuntzarekin. Urretxuarren erdia baino gehiagok (%51,7) ama hizkuntza gaztelera dute eta beste hamarretik lauk (%40,3) euskara. Gainontzekoen artean, %6,8ak bi hizkuntzak ditu ama hizkuntza bezala eta %1,2ak beste hizkuntza bat.

Hizkuntza gaitasunarekin ikusi bezala, bi errealitateren artean kokatzen da Urretxu. Batetik, Goierrin ama hizkuntza euskara dutenak gehixeago dira (%44,4) eta bestetik, Gipuzkoan ama hizkuntza euskara dutenak gutxiago dira (%36,6).



Informazio gehiago: **www.urretxu.net** “Udal administrazioa” atalean, “Urretxu zenbakitan” azpiatalean

_Kaixo Gazte / Kaixo Joven

# Xakea, aisialdirako aukera aparta

Ana Isabel Iturbe

**Xakea kirol soziomotorea da, hezkuntza tresna egokia, joko polit bat, balio garrantzitsuak dituena; kalkulua, intuizioa, aurreratzea, irudimena…taularen aurrean denak berdinak gara, mutil zein neska, adinak ez du mugarik. Ondo pasatzeko modu bat, aisialdirako aukera bat da xakea.**



Herrian xakezaleak baditugu, haur, gazte zein heldu. Hauetako batzuekin hizketan ibili gara mundu hau hobeto ezagutu asmoz.
Jon Alvarez xake monitore eta entrenatzailea dugu, aspalditik kirol honetara zaletua. 2008an Bergaran antolatu zen ikastaro bat egitera animatu zen, eta ordutik ikasleak trebatzen dabil. Urretxu-Zumarragako ikastolak lehen saialdiak egiteko aukera eman zion eta baita Aizpurunea Kultur-Etxeak ere, herriko hainbat ikastetxetan saioak eginaz.
Aizpurunean ezagutu zituen Unai Elias eta Marina Romon, eta saiakera haietatik 2011. urtean Euskadiko Eskolarteko txapelketara iritsi ziren, alebin mailan.

Azken hauei, Gainzurin ikasten ari zirela, xake ikastaro batzuen inguruko informazioa heldu zitzaien eta apuntatzera animatu ziren.Oso ondo pasatzen zutela konturatu eta jarraitzea erabaki zuten, Aizpurunean.
Ikasle bikainak izateaz gain, Marina eta Unaik txapelketa askotan parte hartu dute, Gipuzkoako nahiz Euskadiko Eskolarteko txapelketan, baita Espainiakoan ere. Unai Elias, gainera, hainbatetan saridun suertatu da, Santanderren jokatutako txapelketan 5. gelditu zen esaterako.
Eire-ko txapelketan parte hartu zuen iaz,maila bikaina emanaz.

Duela gutxi Xakea 2.0 proiektua sortu dute Urretxuko Udalaren laguntzaz, honen helburua xakea euskaraz ikasteko material digitala sortzea izanik. Euskarazko hiztunen xake webgunea izan nahi du. Adin desberdinetako umeekin landu daitezkeen jokoez aritzen dira bertan.Helbidea www.xakea.org da. Urko Mendiguren da orriaren arduraduna eta edukiak antolatzen Jon Alvarezekin ibiltzen da.Urko, Goierri taldeko xake jokalaria izan da hainbat urtetan. Aurrera begira, harrobiari lehentasuna emateaz gain, Goierri taldea sendotzea dute helburu.

Marina eta Unai xake jokalari apartak izateaz gain, beste kiroletan ere zaletuak dira. Marina baletean dabil eta Unai saskibaloian aritzen da.
Oso gustukoa duten kirol honetan, xakean, denbora luzez jarraitzeko asmoa dute, gauza asko ikasteaz gain, primeran pasatzen dutelako.

Hasi dira dagoeneko klaseetan eta parte hartzera animatzen dituzte haur, gazte nahiz heldu guztiak. Aizpurunea Kultur-etxera joan eta izena eman, aukera paregabea da, animatu ba!!!

## Bitxikeriak...

*Polgar ahizpak emakume xakelarien lehen postuetan agertzen dira.*
*Aditu askoren ustetan, xakean hasteko adin egokia 3 urtetik aurrera izango litzateke.*
*Hainbat herrialdetan eskolaurreko txapelketak antolatzen dira, EEBBn adibidez.*

# Kaixo: etapa berria, betiko izpirituarekin

Udala



**"Urretxun bizi garen guztiontzat komunikabide bat, gu guztiok elkar ezagutzen eta ulertzen lagunduko digun bide bat izatea nahi genuke... Bide batez Urretxuko elkarte, ikastetxe, auzo, eta nola ez, udaletxean egiten den lanaren berri azaldu nahi genuke". Hala zioen 1979. urteko abenduan buzoneatu zen Kaixoren lehen aleak biltzen zuen lehendabiziko agurrak.**

32 urte,105 zenbaki eta hamarnaka albiste, erreportaia eta elkarrizketa geroago, Jose Luis Garmendia eta Jose Mari Lasaren ekimenez sortu zen komunikabide honen helburuek bere horretan jarraitzen dute, inoiz baino behar handiagoz gainera. Garaiak, ordea, ikaragarri aldatu dira eta orduko multikopistak museoko artikuluak dira, gaur egungo teknologia berri eta sare sozialeekin alderatuta. Kaixok bizirik jarraitzen du eta horrexegatik, gainontzeko guztiei bezala, garai berrietara egokitzeko tenorea heldu zaio eskuartean duzun aldizkari honi ere.

Horrexegatik, urtarriletik aurrera, guztiz eraberritutako proiektu bat helduko da urretxuarron postontzietara. Erroak, esentzia eta izpiritua, ordea, betiko berak izango dira. "Izan zirelako gara, garelako izango dira". Urte hauetan guztietan 166 kolaboratzaileek egindako lanean sakontzea izango da erronka, XXI. mendeko komunikabide batek eskeintzen dituen aukera eta baliabide guztiekin.

Propagandik urrun, herritarrei udalaren ateak zabaltzea da asmoa, gardentasunez eta zintzotasunez. Ezagutu ditzatela urretxuarrek udaletxearen erraiak eta, batez ere, bertako bulego eta pasiloetan lan egiten dutenen jarduna, kale, mendi eta txoko desberdinak eta munduan zehar barreiatutako herritarren bizipen eta lorpenak inoiz ahaztu gabe.

Bide horretan, berrikuntzaz beterik etorriko da hurrengo Kaixoren alea. Edukiak erakargarriago eta irakurterrazagoak egingo dituen diseinu berriaz

haratago, informazioa herritarrek duten eskubide bat dela sinistuta, maiztasuna handitu eta finkatzeko konpromisoa hartuko du Kaixo berriak. Noizbehinkaria izatetik, hilabetero argitaratzea pasako da, udala herrira zabaltzeko helburu garbiarekin.

*Helburu nagusia komunikazioak norantza bakarrekoa izateari uztea da.*

AIdaketarik sakonean, ordea, komunikazioaren norabidean ematea nahiko genuke. Orain arte, prozesuak norantza bakarra izan du gehienean eta aurrerantzean bi norabideetakoa izatea nahiko genuke. Udalak asmo, ideia, eztabaida eta proiektu ugari ditu kontatzeko eta elkartrukatzeko baina hauek ez dute inolako zentzurik herritaren behar eta nahiei erantzuten ez badiete. Horregatik, Kaixok erreminta berri bat izango du, eraberritze prozesuan den udalaren web orrialde berrian. Zuen iritzi, behar, kezka eta zergatik ez, kexa eta kritikak ezagutu nahi ditugu eta horri gure eskura ditugun ate eta bide guztiak irekiko dizkiogu, internet bidez zuen komentarioak utziz, nahiz udaletxeko bulegoetara etortzera gonbidatuz. Komunikazioa erraztu eta elkartrukatzeko bidea izan nahi du Kaixok, guztion artean Urretxu hobetu dezagun.

Benetako demokrazia partehartzailearen bidean, 79ko udalbatza hark sekulako erreminta jarri zuen gure eskuetan, erronka horretan pausu bat aurrera egiteko garaia heldu zaigu eta saiakera honetan gure alboan nahi eta behar zaitugu.

## Nueva etapa de Kaixo

La evolución y los cambios tras 32 años y 105 números de Kaixo han sido grandes, pero el secreto ha sido uno solo, el esfuerzo y la ilusión de un amplio grupo de más de 166 colaboradores, sin cuya implicación todo esto no hubiera sido posible. El inicio de cualquier nueva etapa es el momento idóneo para agradecer todo ese trabajo que seguirá teniendo su hueco y su vital importancia en los próximos números.



# Sara Zufiaurre
# Urretxuar klarinetista

*Kiskitza Ugarteburu*



**Lau urte eta erdi daramatza Euskadiko Orkestra Sinfonikoan (EOS) eta erakunde honek antolatutako titular fijoentzako lehiaketako saria lortu du. Bere musika ibilbideaz, lortutako sari honetaz eta musika klasikoaren egoeraz hitzegin dugu Sararekin.**

**Sararen musika ibilbidea**

5 urterekin hasi zen musika eskolan eta 8 urte zituela klarinetea jotzea erabaki zuen, bere melodiaz eta soinuaz txunditurik. 18 urterekin kontserbatorioan hasi eta titulua 22 urterekin lortu zuen. Bitartean, Unibertsitatean, Magisteritza musikala ikasi zuen. EGOn bi denboralditan aritu zen, Txinan gira bat egiteko aukera izanik.

22 urterekin, EOS-en kolaboratzaile froga egin zuen substituzioak egiteko, aldi berean Nafarroako Orkestran 8 hilabetez ere arituz. Barañaingo Musika eskolan 2 urtez klarinete irakasle gisa gustora ibili zen lanean. Iruñeako Pamplonesa bandan ere jo zuen.

25 urterekin, 2. Klarinetea baxuarekin plaza lortu zuen EOS-en.

**_2007tik zaude EOS-en. Nola gogoratzen duzu momentu hura?**

*Oposaketa eguna oso gogorra izan zela gogoratzen dut, arratsaldeko 15:00etan hasi eta 22:30etan bukatu genuen. Mundu guztiko 70 bat klarinetista aurkeztu ginen. 40tik 5 gelditu ginen eta gero 3, Burgosko bat, frantsez bat eta ni. Burgoskoa eta ni EOS-eko kolaboratzaileak ginen. Bien arteko lehia izan zen, baina nik puntu gehiago lortuak nituen ordurako.*

**_Nolakoa da zure bizimodua?**

*Beti amestu dudana, klarinetea jo eta jo. Gure lana hori da, ikasi, musika entzun, jotzea, eta gozatzea.*

**_EOS-en lehen emakume klarinetista. Matxismorik somatu al duzu?**

*Bai, lanpostu guztietan bezala, hala ere, musikan oso ebidentea dela uste dut.*

**_Zure senarra ere musikaria da, biolontxelo solista da. Nola daramazue?**

*Ezagutu ginenean biak EOS-en geunden lanean, biak titularrak ginen. Oso ondo daramagu, 24 ordu elkarrekin. Oso aberasgarria dela uste dut, bere iritzia ematen dit, dena konpartitzen dugu. Beste ikuspegi batek asko laguntzen du.*

**_Nola ikusten duzu musika klasikoaren egoera Euskal Herrian?**

*Ez dago tradiziorik, abesbatzen munduarekin alderatuz. EOS-en kasuan, eskertzekoa da bazkideen interesa, bazkide kopuru handia da, 2 alditan jotzen ditugu programa berak Kursaalen eta aforoak betetzen dira. Nere ustez, poliki-poliki, badoa aurrera, irratian eta telebistan ere musika klasikoa eskaintzen da, musika eskoletan ere umeek aukera dute musika klasikoa ikasteko. Afizioa, beraz, badago.*

**_2009an Urretxun eskaini zenuen kontzertua berezia izan al zen zuretzat?**

*Bai, oso berezia, egia esan urduri nengoen. Gustora eskainiko nuke berriro kontzertua Urretxun.*

**_Musika irakasle bezala ere aritu zara. Nolako esperientzia izan da?**

*Gustokoa dut musika irakasle gisa aritzea, gehienbat ume txikiekin. Umeek disfrutatzea lortzen baduzu, oso polita da.*

> *Aunque no haya tradición, hay afición por la música clásica. Es de agradecer la fidelidad de los socios de la OSE.*

**_EOS-eko saria lortu duzu, beste bi musikariekin batera.**

*Niretzat oso bereziak diren Maldensen 2 pieza aurkeztu nituen, irakaslearekin beti jotzen nituenak, urtero EOS-eko titular fijoentzako antolatzen duten lehiaketan eta saria lortu dugu. 7-8 pertsonetatik aukeratuak izan ginen. Saria da publikoaren aurrean jotzea solista bezala, Orkestratik kanpo.*

**_Nola ikusten duzu zure etorkizuna?**

*Musika munduan, EOS-en, gozatzen, bidaiatzen eta musikak eskaintzen dituen aukerekin gozatuz.*



*La clarinetista urretxuarra Sara Zufiaurre ha sido premiada por la Orquesta Sinfónica de Euskadi (OSE), dónde es titular de la plaza de Segundo Clarinete con obligación de clarinete bajo, desde el año 2007. Sara presentó, a este concurso para músicos titulares de la OSE, 2 piezas de Maldensen que son para ella muy especiales. El premio consiste en ofrecer diversos conciertos como solista.*

# Askatasun egarria (1981)

*Jon Castrillo*

**Durante este año que ya termina, varios han sido los eventos que han querido conmemorar los 130 años transcurridos desde la muerte de nuestro paisano más internacional, José María Iparragirre. Desde KAIXO queremos unirnos finalmente a esa celebración con un nuevo artículo referido, esta vez, al Mausoleo situado en la zona central del cementerio municipal y bajo el que descansan los restos del bardo urretxuarra.**

1977. urtean, Iparragirre Uruguaytik itzuli zeneko mendeurrena zela eta, Alvaro del Valle Lersundi Fundazioak euskal artisten arteko lehiaketa bat antolatu zuen, Iparragirrek merezitako hilobia hornitzeko asmoz. Bixente Lasa urretxuarrak aurkeztutako "Askatasun egarria" izeneko proiektuari eman zioten saria.



*En 1981, con motivo del centenario de su muerte, se trasladaron sus restos desde su anterior humilde tumba al nuevo y monumental Mausoleo*

Bost urte beranduago, 1981eko apirilaren 5ean, Iparragirreren heriotzaren mendeurrena ospatzen zen egunean inauguratu zen, "Askatasun egarria" izeneko mausoleo hau.

Herriko udaletxean omenalditxo bat egin ondoren, bildutako herritarrek eta Garikoetxea Lehendakaria taldeburu zuten egun horretarako kanpotik etorritako agintari politikoek, Iparragirreren gorpuzkinak gordetzen zituen hil kutxa lepoan har-

*El diseño vencedor correspondió al artista urretxuarra José Vicente Lasa.*

tuta eraman zuten lau herritarrei, oinez lagundu zieten udal batzar aretotik hilerriraino antolatutako ibilbidean.

"Askatasun egarria" izeneko mausoleoa herriko kanposantuko erdigunean dago kokatuta. Mausoleoak Gernikako Arbolaren urtadarra den haritz baten itzalean dagoen trikuharria errepresentatzen du, garai bateko hilobiratze modua irudikatuz. Trikuharria altzairu herdoilgaitzaz egina da eta goialdean estalki zabal bat dauka bere formak gitarra bat gogorarazten duelarik. Behealdean sei hanka edo euskarri ditu; bakoitzak Euskal Herriko Lurralde Historikoetako baten armarria grabaturik darama, eta estalki erditik lauburu ikaragarri batek, eusten zuten kateak puskatuz, zerurantz ihes egiten du askatasun egarri.

Iparragirreren hezurrak Mausoleo berrira eramateak libre uztea suposatzen duen aurreko hilobiak, ordea, ez zuen, zoritxarrez, denbora asko hutsik igaro; bakarrik lau urte beranduago, hau da, 1985ean, Baionan GAL-ek erahil zuen José Maria Etxaniz "Potros" herrikoseme errefuxiatuaren gorpua bertan lurperatu baitzen, Iparragirrek eskatzen zuen bezala "hezurrak nire lur maitean uztea" berak ere lortuz.

*La obra, a la sombra de un retoño del Arbol de Gernika, representa un dolmen con forma de guitarra, sobre seis soportes; cada uno de los cuales lleva grabado el escudo de una provincia vasca, y del que brota un lauburu sediento de libertad…*

# Kaixo txiki!

*Ana Isabel Iturbe*

Urretxu-Zumarragan MINGAINLUZE LEHIAKETA!!



Kaixo lagunok!
A ze mutil neska piloa, 156 guztira!!
Aurten aurrenekoz bildu zarete Labeaga aretoan, hurrengoan ere animatu parte hartzen, zuek zarete eta protagonistak!!!
Zergatik? Ondo pasatzeaz gain,
lagunak egin, euskaraz mintzatu eta asko asko ikasten delako. Noski baietz!!!





## Hurrengo lehiaketa egiten denerako entrenatzen hasi nahi? Jolastu ba etxekoekin edo lagunekin galderatxo hauek erantzuten!

1- Zein koloretakoa da Bob Esponja?

2- Zein kolore lortzen da horia eta gorria nahastuz?

3- Zenbat ipotx agertzen dira Edurnezuriren ipuinean?



4- Ze ipuinetan esaten zuen amaorde maltzur batek "ispilutxo, ispilutxo, nor da erresumako emakumerik ederrena?

5- Bi harri elkarren aurka kolpatuz aurkitu zuen gizakiak historiaurrean lehen aldiz. Zer?

6- Dozena erdi arrautza erosi baditut azokan eta etxera bidean 2 arrautza apurtu bazaizkit, zenbat arrautza osorekin iritsiko naiz etxera?



7- L letra handiz idatzi eta bere erpinak marra batez lotzen baditugu, forma geometriko hau lortuko dugu.

# Eguneko Zentroa
## neurri-neurrira

## *Centro de Día a la carta*



## zerbitzuak eta tarifak

| **Zerbitzua** *Servicio* | **Ordutegia** *Horario* | **Edukia** *Contenido* | **Lanegunak** *Laborables* | **Larunbat, igande eta jaiegunak** *Sábados, domingos y festivos* |
|---|---|---|---|---|
| **Egun osoko zerbitzua** *Día completo de Servicio* | 10:30 - 20:00 | Bazkaria, merienda eta afaria barne *Con Comida, Merienda y Cena* | 23,70 € | 27,80 € |
| **Egun erdiko zerbitzua** *Medio día de servicio* | 10:30 - 20:00 | Bazkaria eta merienda / *Con Comida y Merienda*<br>Merienda eta afaria / *Con Merienda y Cena* | 13,40 €<br>13,40 € | 15,45 €<br>15,45 € |
| **Ordu jakin bat, berezia** *Hora aislada especial* | 08:00 - 11:00 | Gosariarekin *Con Desayuno*<br>Gosaririk gabe *Sin Desayuno* | 20,60 €<br>19,60 € | 21,65 €<br>20,60 € |
| **Ordu jakin bat, arrunta** *Hora aislada normal* | 10:30 - 20:00 | Zaintza / *Guardería* | 5,15 € | 6,20 € |
| **Egun erdi berezia** *Medio día especial* | 08:00 - 14:00 | Gosaria eta bazkariarekin *Con Desayuno y Comida* | 41,20 € | 41,20 € |
| **Bainu geriatriko osoa** *Baño Geriátrico Completo* | 10:30 - 13:00 | Garbiketa osoa, azkazalak moztea, ilea garbitzea, hidratazioa, e.a<br>*Aseo completo, con corte de uñas, lavado de pelo, hidratación, etc.* | 10,30 € | 10,30 € |

- Urte bete lehenagotik, Urretxun erroldatuta daude adinekoentzako diruz lagundutako zerbitzua.
  *Servicios Subvencionados para Personas Mayores empadronadas en Urretxu con un año de antigüedad.*

i

informazioa eta eskaerak

*información y solicitudes*

**Urretxuko Gizarte Zerbitzuak**

☎ 943 03 80 83
Urretxuko Udaletxea
Iparragirre, 20
gizarte.ur@urretxu.net

**Urretxu**ko udala